



## OHIKO GALDERAK

### Sarrera

Sendotze-prozesuan dauden egileei baldintza ekonomiko nahikoak ematea da Xabier Lete Bekaren helburua, denbora jakin batez euskarazko nobela baten sorkuntzan anbizio eta konplexutasun handiagoko lanei ekin ahal izatea ahalbidetuko dieten baldintza ekonomikoak, hain zuzen ere.

Deialdiaren oinarriak argitaratzearekin batera, oinarri horietan sakontzen du dokumentu honek, betiere azalpen-bokazio batekin eta ez da, ezein kasutan ere, oinarrien aplikazioei buruzko interpretazio juridikoak biltzen dituen dokumentu bat izango.

Ziur gaude oinarri horien eguneroko kudeaketak guk aurreikusitakoak baino zalantza gehiago sortzea eragingo duela eta, hori horrela, eskertuko genizueke dokumentu honetan erantzun gabe geratzen den beste edozein kontsulta helbide honetara bidaliko bazenute: [beca-XabierLete@fbbva.es](mailto:beca-XabierLete@fbbva.es).

### Zer hartzen da nobelatzat?

Gutxienez literatur lan bat editatu eta merkaturatu izanaren baldintzaren karakterizazioan generoa (nobela) zehazteko DILVE datu-basea erabiliko da. Adituen Batzordeari egokituko zaio aurkeztutako proiektua nobela-generokoa ote den finkatuko duen balorazioa egitea.

### Merkaturatze-kontzeptua, zeri dagokio?; noiz hartzen da obra bat autoeditatutzat?

Literatur lan bat merkaturatu dela esan daiteke literatura-obra hori saldua izateko liburutegietan edo beste saltoki batzuetan banatu denean, prezio jakin batekin. Liburu digitalaren edo audioliburuaren kasuan, produktu horiek merkaturatzen dituen plataformaren batean egon beharko du, salmentako, alokairuko edo tarifa lauuko kontzeptupean dela ere.

## PREGUNTAS FRECUENTES

### Introducción

El objetivo de la Beca Xabier Lete es procurar a las y los autores en proceso de consolidación, condiciones económicas suficientes que permitan, durante un tiempo cierto, abordar trabajos más ambiciosos o de mayor complejidad en la creación de una novela original en euskera.

Con la publicación de las bases de la convocatoria, este documento viene a ahondar en las mismas, con una vocación explicativa y en ningún caso como documento que contenga interpretaciones jurídicas sobre la aplicación de las bases.

Conscientes de que la gestión diaria de las mismas provocará el que surjan más dudas que las que hayamos podido prever, les agradeceríamos que cualquier otra consulta que no obtenga respuesta de este documento sea dirigida al e-mail [beca-XabierLete@fbbva.es](mailto:beca-XabierLete@fbbva.es).

### ¿Qué se considera novela?

Para la determinación del género en la caracterización de la condición de haber editado y comercializado al menos una obra literaria se utilizará la base de datos DILVE. La valoración de si el proyecto presentado pertenece al género novela le corresponderá al Comité de expertas y expertos.

### El concepto de comercialización, ¿a qué se refiere? ¿Cuándo se considera que una obra es autoeditada?

Una obra literaria se ha comercializado cuando esa obra literaria ha sido distribuida en librerías u otros establecimientos para su venta, con un precio cierto. En el caso de libro digital o audiolibro, deberá encontrarse en alguna plataforma que tenga establecida la comercialización de estos, tanto bajo el concepto de venta, alquiler o tarifa plana.



Egileak berak bere bitarteko propioekin editatutakoa hartuko da obra autoeditatuztat.

### **Zer esan nahi da dedikazio eskusiboa esaten denean?**

Pertsona batek nagusiki nobela idazteari astean gutxienez 5 lanegunetan eskaintzen dion dedikazioa hartzen da dedikazio eskusibotzat. Horregatik, edozein jarduera motatako lanaldi osoekin edo murriztuekin ez dela bateragarria ulertzen da.

Dena den, eta bekaren ezaugarriak kontuan izanda, bateragarria izan daiteke, aldiz, jarduera profesional jakin batzuekin, hala nola ponentzia bat, jardunaldi profesional batzuetan parte hartzea, artikulua bat idaztea, eta abar.

### **Zer hartzen da lan-bizitzako alditzat?**

Lan-bizitza arruntaren adina adin-nagusitasunak (18 urte) eta egungo erretiro-adinak (66 urte eta 6 hilabete) markatzen dute.

Eskatzailearen lan-egoerak (langabea, autonomia, besteren kontura kontratatua, baja edo lanerako ezintasuna) ez du eraginpean hartzen bekaren eskatzaile izateko bete beharreko baldintza. Haatik, aholkulariren bati bekak zure zirkunstantzia juridiko-fiskaletan izan dezakeen eraginari buruzko kontsulta egitea aholkatzen dizugu.

### **Zer da jabetzaren erregistro-ziurtagiri bat? Zer bitarteko dauzkat obraren edizioa egiaztatzeko?**

Erregistro-idazpenak publikoak dira. Hori dela-eta, Jabetza Intelektualaren edozein Erregistrok idazpen horien publizitatea ematen die interesdunei. Idazpenen edukiaren ziurtapenarekin egiten da publizitate hori, betiere frogatze-eraginkortasunarekin. Ohar soil baten bidez

Se considera obra autoeditada aquella que haya sido editada por el propio autor o autora o con sus propios medios.

### **¿A qué se refiere con dedicación exclusiva?**

Se entiende por dedicación exclusiva la dedicación de una persona de forma principal a la escritura de la novela durante, por lo menos, 5 días laborales a la semana. Por ello, se entiende no compatible con jornadas laborales completas o reducidas en ningún tipo de actividad.

No obstante, y teniendo en cuenta las características de la beca, sí puede ser compatible con actividades profesionales puntuales, como pueden ser una ponencia, la participación en unas jornadas profesionales, la escritura de un artículo, etc.

### **¿Qué se considera periodo de vida laboral?**

La edad de vida laboral ordinaria viene marcada por la mayoría de edad (18 años) y la edad de jubilación actual (66 años y 6 meses).

La circunstancia laboral de la persona solicitante (desempleo, autónomo, contratado por cuenta ajena, baja o incapacidad laboral) no afecta al cumplimiento de la condición de solicitante de la beca. Sin embargo, aconsejamos consulte con algún asesor acerca de la incidencia que la beca pueda tener en sus circunstancias jurídico-fiscales.

### **¿Qué es un certificado de registro de la propiedad? ¿De qué medios dispongo para acreditar la edición de la obra?**

Los asientos registrales son públicos. Por esa razón, cualquier Registro de la Propiedad Intelectual proporciona a los interesados publicidad de los mismos. Dicha publicidad se efectúa mediante certificación, con eficacia probatoria, del contenido de los asientos. También puede darse publicidad,

ere eman daiteke publizitatea, informazio-balio soil-soilarekin.

Xabier Lete Beka eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa egiaztatzeari begira, nahikoa izango da erregistratutako obraren egilea adierazten duen ohar soil bat.

Obra erregistratu den erregistrotik lortuko da ohar soil hori, eta erregistro hori Kultura Ministerioaren mendeko Jabetza Intelektualeko Erregistroa izan daiteke, bai eta edozein autonomia-erkidegotakoa<sup>1</sup> edo funtzio hori atzerriko eskualde edo herrialde batean egiten duen atzerriko erakunde bat.

### **Proiektuari buruzko informazioaren atalean, zer hartzen da lagintzat? Aurrekontu bat ere eskatzen da, zer islatu behar dut bertan?**

Garatu nahi den nobelaren jatorrizko zati bat jaso beharko du laginak. Deskribapen bat, elkarrizketa bat edo narrazio zati bat izan daiteke lagin hori. Eskatzaileak erabaki behar du zer lagin mota izan daitekeen bere estiloaren eta garatu nahi duen proiektuaren laginik adierazgarriena. Edozein kasutan ere, lagin hori baliagarria izango zaio Batzordeari narrazio-kalitatea, hizkuntza edo garatu nahi diren elementu berritzaile posibleak balioesteko.

Laginak ez da behin betiko idazkuntza izan beharrik, baina idazkuntza hori ezin da azken produktua izango denetik urrundu. Hori horrela dela egiaztatu ahalko da betiere.

Adituen Batzordeari memorian jasotako alderdiak balioesteko eta kontrastatzeko baliagarria izango zaion dokumentu bat da aurrekontua.

con valor simplemente informativo, mediante nota simple.

De cara a la comprobación de la documentación a presentar en la solicitud de la Beca Xabier Lete, será suficiente con una nota simple, donde conste el autor o autora de la obra registrada.

Esta nota simple se obtendrá del registro donde haya sido registrada la obra, pudiendo ser este el Registro de Propiedad Intelectual dependiente del Ministerio de Cultura, como el de cualquier Comunidad Autónoma<sup>2</sup> u organismo extranjero que realice esta función en una región o país extranjero.

### **En el apartado de información sobre el proyecto, ¿qué se considera una muestra? Además, se pide un presupuesto, ¿qué tengo que reflejar en el mismo?**

La muestra deberá recoger un fragmento original de la novela que se pretenda desarrollar. Esta muestra puede ser una descripción, un diálogo o un fragmento narrativo. Es la persona solicitante quien debe decidir qué tipo de muestra puede ser más representativa de su estilo y del proyecto que quiere desarrollar. En todo caso, esta muestra servirá al Comité para valorar la calidad narrativa, el lenguaje o los posibles elementos innovadores que se quieran desarrollar.

La muestra no tiene por qué ser una redacción definitiva, pero ésta no puede alejarse de lo que será el producto final. Este hecho podrá ser comprobado.

El presupuesto es un documento que servirá al Comité para valorar y contrastar aspectos recogidos en la memoria.

Entre los gastos que pueden recogerse se encuentran los gastos relativos a compra de

<sup>1</sup> Honako hau da Euskadiko Jabetza Intelektualaren Erregistroaren linka: <https://www.euskadi.eus/jabetza-intelektuala/web01-a2kulond/eu/>

<sup>2</sup> El link del Registro de la Propiedad Intelectual de Euskadi es <https://www.euskadi.eus/propiedad-intelectual/web01-a2kulond/es/>



Jaso daitezkeen datuen artean daude materiala erosteari buruzko gastuak (liburuak, aldizkariak, artxiboak...), datu-basera sartzeko datuak, edo jarduera garatzeko materialean egin beharreko inbertsioa.

Materialean egindako inbertsioaren kasuan, zenbatekoak ezin izango du eskatutako zenbatekoaren guztizkoaren % 10a gainditu.

### **Nola izango da eskaerak hartzeko eta zuzentzeko prozesua?**

Eskaeraren dokumentazio guztia [beca-XabierLete@bbva.es](mailto:beca-XabierLete@bbva.es) helbide elektronikora bidali beharko da formatu digitalean 2025eko apirilaren 10eko 13:00ak baino lehen (Espainiako penintsula-ordua).

Oinarrien 5. puntuan adierazitako dokumentazio guztia bidaltzen denean osatuko da eskaeraren aurkezpena, behar bezala betetako eta sinatutako eskaera-inprimakiarekin batera.

Espedienteak berrikusi ondoren, zuzentzeko aldi bat irekiko da bidali ez den dokumentazio guztia entregatzeko edo oinarrietan jasotakoaren arabera beharrezkotzat jotzen diren dokumentuetan informazioa eta datuak zuzentzeko.

10 egun natural (jaiegunak eta igandeak barne) izango ditu zuzentzekoaldiak, BBVA Fundazioak zuzentzeko emaila bidali duen egunetik zenbatzen hasita.

### **Nola izango da proiektuak hautatzeko prozesua?**

Hainbat fasetan egingo da bekaren hautatze-prozesua. Lehen une batean, Adituen Batzordeari helaraziko dio BBVA Fundazioak proiektuei buruzko dokumentazioa, proiektu horien balorazioa egin dezaten.

Batzorde Mistoak hautatuko du Adituen Batzordea, eta euskarazko literaturaren arloko adituek osatuko dute.

material (libros, revistas, archivos...), gastos de acceso a base de datos o inversión en material necesario para el desarrollo de la actividad.

Para el caso de inversión en material, el importe no podrá superar el 10% del total de la cuantía solicitada.

### **¿Cómo va a ser el proceso de recepción y subsanación de las solicitudes?**

Toda la documentación de la solicitud deberá enviarse en formato digital a la dirección de correo-e [beca-XabierLete@bbva.es](mailto:beca-XabierLete@bbva.es) antes de las 13:00 horas (hora peninsular española) del 10 de abril de 2025.

La presentación de la solicitud estará completada cuando se remita toda la documentación indicada en el punto 5 de las bases, junto con el impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.

Una vez revisados los expedientes, se abrirá un periodo de subsanación para la entrega de aquella documentación que no haya sido remitida o para la corrección de información, datos, en aquellos documentos que se considere necesario de acuerdo con lo recogido en las bases.

El periodo de subsanación será de 10 días naturales (festivos y domingos incluidos) desde el día de envío del email de subsanación por parte de la Fundación BBVA.

### **¿Cómo va a ser el proceso de selección de los proyectos?**

El proceso de selección de la Beca se realizará en varias fases. En un primer momento, la Fundación BBVA le hará llegar al Comité de expertas y expertos la documentación relativa a los proyectos, para que hagan una valoración de los mismos.

El Comité será designado por la Comisión Mixta y estará formado por expertas o expertos en literatura en euskera.



Bigarren fase batean, egileari buruzko dokumentazioa bidaliko zaie modu independentean balioetsi dezaten. Aurkeztutako proiektuarekiko egin ahal izango dute balorazio hori.

Batzordearen kideen balorazio independenteak jaso ondoren, bilera kolegiatu baten deialdia egingo da, eta bertan hautatuko dute Xabier Lete Beka jasoko duen pertsona.

Batzordeak beka esleituko du, Adituen Batzordeak egindako hautaketari jarraikiz.

### **Nola jakin ahal izango dut hautatutakoa ni ote naizen?; zer epetan?**

Deialdiaren ebazpena publikoa izango da BBVA Fundazioaren [www.fbbva.es](http://www.fbbva.es) eta Eusko Jaurlaritzaren [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webguneetan, 2025eko uztailaren 15erako beranduenez.

Bekaren onuradunak posta arrunt edota elektronikoko bidezko komunikazio baten bitartez jasoko du informazioa.

Gainerako eskatzaileek ez dute inolako jakinarazpen pertsonalizaturik jasoko eta BBVA Fundazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratzen den albistearen bidez kontsultatu ahal izango dute ebazpena.

### **Noiz hasten da zenbatzen 12 hilabeteko epea?; noiztik aplikatu behar dut lan-esklusibitatea?**

Bekaren onuradun izan denak beka onartzen duela egiaztatzen duen konpromiso-dokumentu bat sinatu beharko du 2025eko uztailaren 31 baino lehen. Dokumentu horretan biltzen dira oinarrietan edota ohiko galderen dokumentu honetan ezarritako legealderei eta kudeaketa-alderdi guztiak. Onartzeko konpromisoa sinatzearekin batera hasiko da bekako nobelaren garapena eta egikaritzapena.

Dedikazio eskusiboa, hasteko, konpromisoa sinatzen den unetik eskatuko da nahitaez.

En una segunda fase, se les enviará la documentación relativa al autor o autora para que puedan valorarla de forma independiente. Esta valoración, podrán realizarla en relación con el proyecto presentado.

Una vez recogidas las valoraciones independientes de los miembros del Comité, se convocará una reunión colegiada en la que seleccionarán a la persona receptora de la Beca Xabier Lete. La Comisión, siguiendo la selección realizada por el Comité, adjudicará la beca.

### **¿Cómo podré saber si soy la persona seleccionada? ¿En qué plazos?**

La resolución de la convocatoria será pública en los sitios web de la Fundación BBVA, [www.fbbva.es](http://www.fbbva.es), y del Gobierno Vasco, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus), no más tarde del 15 de julio de 2025.

La persona beneficiaria de la beca será informada a través de una comunicación vía postal y/o electrónica.

El resto de personas solicitantes no recibirán ningún tipo de notificación personalizada y podrán consultar la resolución a través de la noticia que se publique en la web de la Fundación BBVA y del Gobierno Vasco.

### **¿Cuándo empieza a contar el plazo de 12 meses? ¿Desde cuándo debo aplicar la exclusividad laboral?**

La persona que haya sido beneficiaria de la beca deberá firmar, antes del 31 de julio de 2025, un documento compromiso de aceptación de la misma. En este documento se recogen todos los aspectos legales y de gestión establecidos en las bases y/o en este documento de preguntas frecuentes. Con la firma del compromiso de aceptación dará comienzo el desarrollo y ejecución de la novela objeto de la beca.

La dedicación exclusiva, en principio, se exigirá desde el momento de la firma del



Dena den, onuradunak izan ditzakeen lan-zirkunstantziak kontuan izanda, hiru hilabeterainoko gabealdia izatea baimenduko zaio, onuradun horrek bere lan-egoera ordenatu ahal dezan eta bekako nobela idazteko dedikazio eskusiboa hori izan ahal dezan.

### **Nola egingo da bekaren ordainketa? Zein dira epeak eta ordainduko diren dirukopuruak?**

Xabier Lete Beka eman zaion pertsonak jaulkitako fakturaren kontra egingo da bekaren ordainketa, oinarrietan ezarritako epeei eta dirukopuruei jarraikiz. Dirukopuruek aldaketak izan ditzakete egileak sinatutako onarpen-konpromisoan bildutakoren eta itundutakoaren arabera. Bekaren onuradunari egokituko zaio aholkularitza espezializatua jasotzea bere egoera juridiko-fiskalarekiko, eta zerga-arloko eta gizarte-segurantzako legeria betetzearekiko.

Horrenbestez, honako hauek izango dira epeak:

- Beka onartzeko konpromisoa sinatzean eta dagokion faktura jaulkitzean egingo da lehenengo ordainketa.
- Bitarteko memoria jaso eta berrikusten denean, eta dagokion faktura jaulki ondoren egingo da bigarren ordainketa.
- Nobela entregatzean egingo da hirugarren ordainketa, dagokion fakturaren jaulkipenarekin, eta egindako jardueren eta lortutako emaitzen azken deskripzio-memoria baten aurkezpenarekin batera, memoria horretan egikaritutako aurrekontua eta aurrekontua justifikatzen duten dokumentuak ere bilduta.

### **Noiz emango da beka amaitutzat?**

Ordainketetako azkena egin ondoren emango da amaitutzat beka.

compromiso. No obstante, atendiendo a las circunstancias laborales que pueda tener la persona beneficiaria, se le permitirá una carencia de hasta tres meses, con el fin de que pueda ordenar su situación laboral y tener esa dedicación exclusiva a la escritura de la novela objeto de la beca.

### **¿Cómo se va a realizar el pago de la beca? ¿Cuáles son los plazos y las cantidades que se abonen?**

El pago de la beca se realizará contra factura emitida por la persona a la que se le haya concedido la Beca Xabier Lete en los plazos y cantidades establecidas en las bases. Las cantidades pueden sufrir variaciones en función de lo recogido y pactado en el compromiso de aceptación suscrito por el autor o la autora. Corresponderá al beneficiario de la beca recabar asesoramiento especializado en relación a su situación jurídico-fiscal y al cumplimiento de la legislación tributaria y de seguridad social.

Por tanto, los plazos serán:

- El primer pago se realizará a la firma del compromiso de aceptación de la beca y la emisión de la factura correspondiente.
- El segundo pago se realizará tras la recepción y revisión de la memoria intermedia y la emisión de la factura correspondiente.
- El tercer pago se realizará a la entrega de la novela, junto con la emisión de la factura correspondiente y la presentación de una memoria final descriptiva de las actividades realizadas y resultados alcanzados, así como del presupuesto ejecutado y los documentos justificativos del mismo.

### **¿Cuándo se dará por finalizada la beca?**

La beca se dará por finalizada tras realizarse el último de los pagos.



**BBVA Fundazioak edo Eusko Jaurlaritzak, zer motatako eskubideak izango dituzte obraren gainean? Noiz hasi naiteke argialetxeekin hitz egiten nire obra argitaratzeko?**

BBVA Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak idatzitako nobelaren gaineko promozio-eskubideak gordeko dituzte Xabier Lete Bekari esker, eta eskubide horiek ez dira, ezein kasutan ere, eksklusiboak izango. Promozio-eskubidetzat ulertzen ditugu obra ezagutaraztea ahalbidetzen diguten eskubideak, baita egilearen irudia ezagutaraztea ahalbidetzen digutenak ere.

Bekaren onuradunak argialetxeekin negoziatu ahal izango du bere obraren argitalpena hori egitea egokia dela iruditzen zaion unean, ez baitago aurreikusita obra hori BBVA Fundazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik argitaratuko denik.

Dena den, obraren edozein argitalpen osotan edo partzialetan, eta obrari buruz egingo den promoziorako edozein teaserretan edo edozein publizitatetan, honako hau jaso beharko da: "Eusko Jaurlaritzak eta BBVA Fundazioak sustatutako Xabier Lete 2025 Bekari esker sortu da eleberri hau"

Ziurtapen hori bere jatorrizko bertsioan zein egiten diren edizio eta itzulpen guztietan bildu beharko da, eta edizioari dagokion hizkuntzan, eta posible denean bi erakundeen logotipoak ere barnean hartuko dira.

**¿La Fundación BBVA o el Gobierno Vasco qué tipo de derechos van a tener sobre la obra? ¿Cuándo puedo empezar a hablar con editoriales para publicar mi obra?**

La Fundación BBVA y el Gobierno Vasco se reservan derechos promocionales sobre la novela escrita gracias a la Beca Xabier Lete, no siendo, en ningún caso, estos exclusivos. Entendemos por derechos promocionales aquellos que nos permitan dar a conocer la obra, así como la imagen del autor o autora.

La persona beneficiaria de la beca podrá negociar con editoriales la publicación de su obra en el momento que crea oportuno, ya que no está prevista que la publicación de la misma sea a cargo de la Fundación BBVA o del Gobierno Vasco.

En todo caso, en cualquier publicación total o parcial de la obra, teaser promocional o publicidad que se haga sobre la misma, deberá hacerse constar: <<Esta novela ha sido creada gracias a la Beca Xabier Lete 2025, promovida por el Gobierno vasco y la Fundación BBVA>>. Esta constancia deberá recogerse tanto en su versión original como en todas las ediciones y traducciones que se realicen y en el idioma que corresponda a la edición, incluyendo además los logotipos de ambas instituciones siempre que sea posible.